



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

54 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, “Laguntzak Nafarroako eskualdeetako zentroi” izeneko 00590-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, “Laguntza kanpoan dauden Nafarroako zentroi” izeneko 00620-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, istripuei buruz kanpinetan egindako azterketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Toki Administrazioako bitarteko idazkari eta kontu-hartzailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, “4050 Plan Gehigarria” izeneko 10385-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, 1997ko urriaren 3ko Ministroen Kontseiluaren erabakiaren babesean kontratatutako langile minusbaliatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Allozko urtegia hustutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, perituen eraikina Atarrabiako udaletxea izan dadin egiten ari diren negoziazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, gaitasun artistikoak arautzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, “Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urte anitzeko plana” izeneko 15760-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, “Nafarroako Unibertsitate Publikoko eraikuntza” izeneko 94005-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, “Ekipo medikoak” izeneko 95043-8 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, “Kanpoko kontratazioak” izeneko 09447-7 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “Ordainketak obligazioa finkatuak ez betetzeagatik” izeneko 07840-4 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, “Epaiaik betearaztea” izeneko 08255-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –277/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, “Kutsaduraren prebentzioa eta onbideratzea” izeneko 13290-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, “Sendagaiak” izeneko 26000-8 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, “FEOGA laguntzak” izeneko 31370-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, “Dirulaguntzak esnegintza uzteagatik” izeneko 30840-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –287/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, “Nafarroako Ogasunari buruzko dokumentuak prestatu eta argitaratzea” izeneko 07710-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, “Epaiaik betearaztea” izeneko 08255-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –300/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, “Epaiaik betearaztea” izeneko 08255-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –301/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, “Lurralde-konferentzia 2000” izeneko 10315-8 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, “Nafarroako jaialdiak eta bestelako programa artistiko bereziak” izeneko 16190-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, “Liburuak eta bestelakoak argitaratzea” izeneko 16400-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, “Epaiaik betearaztea. Gastu juridiko eta auzibidekoak” izeneko 19615-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, “Bilerak, konferentziak eta ikastaroak” izeneko 37620-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, “Komunikabideetako kanpainak” izeneko 37600-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, “Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko koordinazio sozio-sanitarioko programa, ekimen, proiektu eta ekintzak” izeneko 25661-2 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, “Ordainsariak zerbitzu berezietan diren funtzionarioei” izeneko 16335-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, “Nazioko eta nazioarteko larrialdietarako laguntzak” izeneko 35680-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, “Zor publikoa eta bestelako maileguak jaulki, aldatu eta kitatzeko gastuak” izeneko 07930-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, “Ekipo informatikoak” izeneko 07820-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, “Epaiaik betearaztea” izeneko 08255-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –358/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, “Kontseiluko kideei eskatutako ponentziak eta adituen beste txosten batzuk ordaintzeko kalteordainak” izeneko 01820-7 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, “IPE izeneko erakundeak eta Europari buruzko Nafarroako Informazio Sareak antolatutako jardunaldiak, hitzaldiak eta bilerak” izeneko 09110-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, “Familiaren Behatokia” izeneko 35570-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, “Sektore publikoko akzioak erostea” izeneko 08500-1 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, “Epaiaik betearaztea” izeneko 08255-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –391/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

- Galdera, “Eraikineko funtzionamendu gastuak” izeneko 32210-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, “Eskualde apaletako azpiegituren plan berezia” izeneko 92021-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, “IFOP laguntzak” izeneko 31380-2 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, “Esnegintza uzteko diru laguntzak” izeneko 30840-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –423/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, “Departamentuak eginiko programen sustatu eta ezagutaraztea” izeneko 35550-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, “Epaiak betearaztea” izeneko 08255-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –432/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

F saila:
GALDERAK

“Laguntzak Nafarroako eskualdeetako zentroei” izeneko 00590-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Laguntzak Nafarroako eskualdeetako zentroei” izeneko 00590-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 338/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-aldaketari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Zein arrazoi izan dira Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 338/2000 Ebazpena onetsiz 8.000.000 pezetako

aurrekontu-gehikuntza egiteko “Nafarroako zentro erregionalendako laguntzak” izeneko 00590-3 kontusailan?

00590-3 kontusailak Espainiako beste erregioetan dauden Nafarroako zentroendako dirulaguntzak finantzatzea du helburu. Hasieran 10 milioikoa zen. Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren otsailaren 3ko 14/2000 Foru Aginduaren bidez onetsitako deialdiko eskabideak aurkezteko epean kanpoan dauden Nafarroako zentrozen eskaerek 77,5 milioi egiten zuten guztira. Aurkeztutako eskabideen kopurua ikusirik, eta kontuan harturik haietako batzuk lehenbailehen bideratu behar direla zentru horien funtzionamendua bermatu nahi bada, bidezkotzat jo zen aipatu kontusailari 8 milioi gehitzea, 18 milioi egin arte, aurkeztutako eskabideetako gehiagori diru gehiagorekin erantzuteko.

Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori?

Espainiako beste erregioetan dauden Nafarroako zentroendako eskaerei erantzuten haien funtzionamendu, kultur ekintza eta bestelakoetarako dirulaguntzak bideratzeko. Honako entitate hauek jasoko dute dirulaguntza:

| Zentroa | Funtzionamendurako dirulaguntzak | Kultur jarduetarako dirulaguntzak | Aparteko dirulaguntzak |
|-----------------|----------------------------------|-----------------------------------|--------------------------------------|
| Barakaldo | 350.000 | 500.000 | 450.000 Finantza gastuak |
| Bartzelona | 350.000 | 500.000 | |
| Burgos | 350.000 | 500.000 | |
| Kantabria | 350.000 | 500.000 | 45.000 Urteurrena ospatzea |
| Lleida | 150.000 | 300.000 | |
| Logroño | 350.000 | 500.000 | 450.000 Aste kulturala |
| Madrieko A.C. | 350.000 | 500.000 | 450.000 Eguberrietako kontzertua |
| Madrieko N.E. | 350.000 | 500.000 | 450.000 Javierda N. Baztán |
| R.C. San Fermín | 350.000 | 500.000 | |
| Valentzia | 350.000 | 500.000 | |
| Valladolid | 350.000 | 500.000 | 450.000 Futbito talde ekipamendua |
| Gasteiz | 350.000 | 500.000 | 270.000 Zentroaren atea aldatzea |
| Bizkaia | 350.000 | 500.000 | |
| Zaragoza | 350.000 | 500.000 | 450.000 Finantza gastuak |
| Federazioa | 350.000 | | 650.000 Federazioaren aldizkaria |

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko urriaren 31n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Laguntza kanpoan dauden Nafarroako zentroei” izeneko 00620-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Laguntza kanpoan dauden Nafarroako zentroei” izeneko 00620-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-

lean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 338/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-aldaketari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Zein arrazoi izan dira Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 338/2000 Ebazpena onetsiz 5.000.000 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko "Laguntzak kanpoan dauden Nafarroako zentroei" izeneko 00602-9 kontusailean?

00620-9 kontusailak Espainiatik kanpo dauden Nafarroako zentroendako dirulaguntzak finantzatzea du helburu. Hasieran 18,6 milioikoa zen.

Otsailaren 3ko 16/2000 Foru Aginduaren bidez onetsi zen deialdiko eskabideak aurkezteko epean kanpoan dauden Nafarroako zentroen eskaerek 78,1 milioi egiten zuten guztira. Aurkeztutako eskabideen kopurua ikusirik, eta kontuan harturik haietako batzuk lehenbailehen bideratu behar direla zentru horien funtzionamendua bermatu nahi bada, bidezkotzat jo zen aipatu kontusailari 5 milioi gehitzea, 23,6 milioi egin arte, aurkeztutako eskabideetako gehiagori diru gehiagorekin erantzuteko.

Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori?

Kanpoan dauden Nafarroako zentroendako eskaerei erantzuten haien funtzionamendu, kultur ekintza eta bestelakoetarako dirulaguntzak bideratzeko. Honako entitate hauek jasoko dute dirulaguntza:

| | |
|---|----------------------|
| – Argentinako Nafarroako zentroen federazioa: Dantza eta musika tradizionalari buruzko 2. ikastaroa antolatzea. | 3.500.000 |
| – Argentinako Nafarroako zentroen federazioa: talde nafarren 7. topaketa antolatzea. | 11.500.000 |
| – Txileko Nafarroako zentroa: Rufino Melero jaunaren omenez, Espainiako estadioa eraiki baitzuen 1950ean, busto bat jartzea. San Ferminetan akordeoilarien emanaldia | 325.000 |
| – Sudeko Nafarroako zentroa: funtzionamendua. | 250.000 |
| – Buenos Airesko Nafarroako zentroa: funtzionamendua "Reino de Navarra" erakusketa antolatzeko gastuak | 750.000 1.000.000 |
| – Mendozako Nafarroako zentroa: funtzionamendua | 350.000 |
| – Uruguai izeneko Nafarroako ikasketen institutua: akordeoilarien emanaldia | 300.000 |
| – Rosarioko Nafarroako zentroa: Lizarrako gaita-joleen emanaldia. Aupa Navarra taldearen emanaldia | 480.000 |

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko urriaren 31n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Istripuei buruz kanpinetan egindako azterketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak istripuei buruz kanpinetan egindako azterketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 16ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du istripuei buruz kanpinetan egindako azterlanei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagaitia Ripoll andrearen erantzuna:

1) 1996. urtean zeuden guztietan.

2) Gobernuaren 1996ko irailaren 9ko Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuak hainbat departamenturi agindu zitzaion kanpalekuetako instalazioen segurtasunari buruzko azterlan bat egiteko. Horretarako, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua izendatu zuten koordinatzaile. Gobernu erabaki horren bidez, azterlan bat agindu zen kanpalekuetako lurretako arriskuak antzeman eta haien ezaugarriak zehaztu, jarduera horiek behar bezala gauzatzen direla bermatzeko neurriak ezarri eta egokiak ez diren lurren erabilera saihesteko. Era berean, lan horrek prebentzio neurrien eta ebakuazio-planen ezinbestekotasuna aztertu behar zuen administrazio ahaldunen erantzukizuna, bereziki udalena, zehaztuz, instalazio, zaintza eta arrisku egoeretan hartu beharreko neurriak dagokionez.

Lan-taldea edo departamentuarterko batzordea, izen hori eman baitzitzaien gero, 1997ko otsailaren 2an bildu zen lehenbizikoz. Haren geroztik bost bilera egin dira 1997an eta hiru 1998 urtean, azkena 1998ko ekainaren 23an.

Hona hemen aldi horretan egindako azterlan nagusiak:

a) Arriskuak antzemateko azterlan orokorra (Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua - TENADA).

b) Kanpinen autobabeserako eskuliburua (Lehendakaritza eta Barne Departamentua), kanpin guztiei jada eman zaiena.

c) Asolaze, Murkuzuria, Urrutea eta Aralar kanpinetan baso-suteen arriskuari buruzko azterlana (Suhiltzaileen partzuergoa).

d) Nafarroako kanpalekuetan uholdeak egoteko arriskuari buruzko azterlana (Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Ur Baliabide eta Energia Berriztagarrien Atala, eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Herrilan Zerbitzua).

e) Hainbat kanpinetan (11) sartzeko zailtasunei buruzko txosten teknikoa (Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Zainketa eta Kudeaketa Teknologikoaren Zerbitzua).

f) "El Molino", "Lizarra" eta "Murkuzuria" kanpinetan egon daitekeen arrisku geoteknikoari buruzko txosten teknikoa (Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Geologi eta Geotekni Atala).

Honako hauek dira azterlanean aipatzen diren arrisku nagusiak:

a) Uholdeak egoteko arriskua:

Urak hartzeko arriskua* dute, handiagoa edo txikiagoa, kontzeptu horretarako Urei buruzko Legeak eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak ezartzen duten definizioaren arabera, egun jardunean ari diren ondoko kanpinak:

Aralar (Lekunberri)
Cantolagua (Zangoza)
Cintruénigo (Cintruénigo)
Irati (Orbaitzeta)
Iskibi (Goizueta)
Iturbero (Irunberri)
Josenea (Urdazubi)
Osate (Otsagabia)
Riezu (Errezu)
Telleri (Goizueta)
Ulzama (Ultzama)
Urrobi (Aurizberri)

* Urei buruzko 29/1985 Legearen 11. art. eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 14.3 art.: "Legearen arabera urak hartzeko arris-

kua duten lurzorua dira uholdeen itzulera-aldia 500 urte baino gutxiagokoa dutenak.”

Dokumentazio osagarriak biltzen ditu ukitutako azalera eta uholdearen ezaugarriak (maiztasuna, sakonera, abiadura, etab.). Halaber, zenbait kasutan, arriskua saihesteko har daitezkeen egitura eta kudeaketako neurriak aipatzen ditu. Haietako gehienek ez dute konfederazio hidrografikoen aginduzko baimenik, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 82. artikuluan ezarri moduan. Bidezkoa litzateke lehenbailen debekaztea kanpalekuak jartzea urak hartzeko arriskua duten lekuetan, aipatu baimenik ez badute, baimena emateko ardura duten organismo horiek neurri egokiak hartu arte.

Programatutako kanpin hauek ere urak hartzeko arriskua dute, baina une honetan itxita daude:

Orbara (Orbara)

Burgui (Burgi)

El Molino (Mendigorria, zabalpena)

Egindako azterlanek ezarritakoari jarraikiz, kanpatzeko tokiak mugatu beharko liriateke uholderik jasateko arriskurik ez duten aldeetara.

Dena den, edozein baimen eskuratzeko baldintza izan beharko luke ibai arroko organoak aldeztu aurretik bere baimena emateak.

b) Arriskuak sarbideetan:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak egindako txostenean, kanpin guztietako sarbideak aztertu ondoren, kasuan kasuko neurriak hartzea gomendatzen da, hala nola, ikuspen baldintzak ziurtatzea, egiturazko obrak egitea, irla-txoak esaterako, etab.

Txostenak gomendatzen dituen neurriak, kanpinen jabeek betearazi behar zaizkienak, eragin ekonomiko handikoak dira (obra horien batez besteko kostua 10-12 milioi pezeta izango litzateke).

b-2) Uholdeen kontrako babesak. Uholdeei buruzko azterlanetan bideragarritzat jotzen da ondoko kanpinetan egiturazko neurriak hartzea, gutxi gorabeherako aurrekontu hauekin:

Riezu (Errezu)

Iskibi (Goizueta)

Urrobi (Aurizberri) 14,4 milioi pezeta

Iturbero (Irunberri) 11,6 milioi pezeta

Osate (Otsagabia) 7,3 milioi pezeta

Guztira 33,3 milioi pezeta

Neurri horiek betetzeko ibai arroko organoen baimena beharko da.

c) Horrelako instalazioetarako baimena ematen duten udalei eta departamentuei jakinaraztea ibai arroko organoen baimena behar dutela behin betiko baimena eman aurretik. Gomendio hori kontuan hartu behar da arautegi berria prestatzean.

d) Hidrologia azterlanen kopia bidaltzea ibai arroko organoei, haiek baitute baimenak emateko ardura, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko 82. artikuluan ezarritakoaren arabera.

e) Kontuan hartzea egindako azterlanetako gomendioak eta ondorioak instalazio horiek gobernatzeko arautegi berriak prestatzen direnean.

3) Azterlanetatik ondorioak eta jarraibideak atera dira; txostenak interesatuei jakinarazi zaizkie, eta Babes Zibilak segimendua egin du interesatuei eman zitzaizen Autobabeserako eskuliburuan agindutakoaren gainean.

4) Departamentuarterko Batzordea urtea bukatu baino lehen elkartuko da seguruenik, azterlan horien eragina ikertu eta jarduteko ereduak zabalteko, ahal den neurrian, gomendioen betetzea bideratuz.

5) Departamentuarterko Batzordeak erabaki zuen dirulaguntza publiko batzuk aurkeztea egindako azterlanetako neurriak behin betikoz hartzea bultzatzeko. Oraindik ez da zehaztu haien zenbatekoa eta egutegia.

Iruñean, 2000ko urriaren 31n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan konseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

Toki Administrazioiko bitarteko idazkari eta kontu-hartzaileei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Toki Administrazioiko bitarteko idazkari eta kontu-hartzaileei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 31ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak ondoko galderak egin ditu:

1. Prestatu al du Nafarroako Gobernuak administrazioak, idazkaritza eta kontu-hartzailetza arloan, elkartzeko alternatibarik Nafarroako eremuren baterako? Non? Zer moduz onartu dituzte proposamen horiek ukitutako toki entitateek?

Galdegileari, aurtengo maiatzaren 2an ere egin baitzuen galdera, emandako informazioarekin bat jakinarazten da toki entitateei proposatu zitzaizela "lan-batzordeak" eratzea, zerbitzuko zuzendaritzarekin batera, hartzaileen parte hartze aktibo eta departamentuaren laguntzaz, antolaketak berria prestatu eta dokumentatzeko. Toki entitateak, ondotik aipatzen direnak, kontzientziazteko lanak honako emaitza hauek izan ditu orain arte:

LIZARRAKO MERINDADEA

Aras, Aguilar Kodesko, Cabredo, Genevilla, Marañón eta Lapoblación-Meanoko udalerriak:

– Lan-batzordea eratu zen, 2000-05-03an, udalerrri guztien aldeko erabakiaz.

– Sortu nahi den mankomunitateko estatutuen proiektua idatzi eta onartu da.

– Lapoblación-Meanoko udalerrriak proiektua utzi du, gainerakoek ez bezala onartu ez duelako entitate berri horren egoitza Aguilar-Kodeskoan kokatzea.

– Ekimena aurten gauzatuko da seguruaski, elkartu diren udalerrien arteko komunikazio eta

kudeaketarako sistema informatikoa zehazten denean.

Iguzkitza, Lukin, Barbarin, Villamayor de Monjardín, Etaio, Oko-Olexua, Legaria, Allinibar, Metautengo barruti, Ameskoabarren, eta Amesko-agoiengo gainerako udalerrriak:

– Lan-batzordea 2000-04-10ean eratu zen, Ameskoabarren, Allin, Metauten, Etaio, Oko, Olejua eta Legariako udalerrien aldeko erabakiaz.

– Gainerako udalerriek ez zuten aurrekoek onartutako ekimena bereganatu.

– Sortu nahi den mankomunitateko estatutuen proiektua idatzi eta onartu da.

– Elkartzeko jarrera ona antzeman da, nahiz eta aurreko egoerek sortutako arazoak konpondu behar diren.

Deierri, Gesalatz eta Jaitz, Abartzuza eta Lezaungo udalerrriak:

– Hauteman da udal ordezkariak begi onez hartu dituztela udalerriei administrazio egitura berriak, udalen batasunak bultzatu baititu, emateko ekimena.

– Lan-batzordea eratu zen, 2000-09-27an, udalerrri guztien aldeko erabakiaz.

ZANGOZAKO MERINDADEA

Zaraitzuko udalerrriak:

– Espartzako Udalerriak izan ezik, ibarreko gainerako udalerriek proposatutako "lan-batzordea" eratzeke ekimena onartu zuten, 2000-03-22an.

– Sortu nahi den mankomunitateko estatutuen proiektua idatzi eta onartu da.

– Elkartzeko jarrera ona antzeman da, nahiz eta aurreko egoerek sortutako arazoak konpondu behar diren.

Erronkaribarreko udalerrriak:

– Bilera bat egin da ibarreko udal guztiekin, eta bertan, aurreko legegintzaldian zonalde horri buruz enkargatu eta egin zen ikerlanaren edukia aztertzeaz gain, azpimarratu da Departamentuaren gogoia ibarreko udalerrien administrazio antolaketak diseinatzeko, parte hartze aktiboaren bidez.

– Hasierako eta hurrengo elkarrizketaldietan interesa erakutsi arren, ez da horren gaineko erantzun zehatzik jaso.

Aezkoa ibarreko udalerriak:

– Ibarreko udalerrri guztiei helarazi zitzaizkien lan-batzorde bat eratzeko zerbitzuaren ekimena, eta gaurko eguna arte honako udalerrri hauek onartu dute proposamena: Abaurregaina, Abaurrepea, Aria, Garralda eta Hiriberri.

– Gainontzeko udalerriei dagokienez, haien erabakia falta da lan-batzordea eratu eta elkartzeko prozesua hasteko.

Irunberri, Erromantzatu, Ledea, Esa, Xabier, Urraulgoiti, Urraulbeiti, Nabaskoze eta Gazteluberriko udalerriak:

– Zerbitzua hasi zen aipatu udalerrriak kontzientziatzen, haien berrantolaketa administratiborako elkartzeko moduak haiekin aztertze asmoz, eta erabaki zuten aurtengo irailaren 30era arteko epea ezartzea euren gogoaz azaltzeko.

– Gaurko eguneko datarekin Irunberriko Udalak eman du aldeko jarrera agertu du.

IRUÑEKO MERINDADEA

Ettxauri, Ziritza, Etxarri, Bidaurreta, Beraskoain, Zabaltza eta Zizur Zendeako udalerriak:

– Udalerrri horiekin bildu ondoren, zerbitzuaren ekimenarekiko jarrera ona azaldu zuten, eta gelditu ziren aurtengo irailaren 15a baino lehen horren gaineko erabakia hartzeko.

– Zizur Zendeako Udalerriko alkateak bilerara joaterik izan ez zuenez, zerbitzu honi adierazi zion ekimenaren gorabeherez galdetzeko asmoa.

Obanos, Uterga, Legarda, Muruzabal, Eneritz, Adios, Ukar, Añorbe eta Tirapuko udalerriak:

– Lan-batzordea 2000-09-26an eratu zen, aipatu udalerrri guztien aldeko erabakiaz. Elkartzeko jarrera ona antzeman da.

– Urriaren 26an Batzordearen bilera izanen da estatutuen proiektua aztertzeko.

Lakuntza, Arbizu eta Ergoieneko udalerrriak (Sakana):

– Zerbitzua saiatu da aurreko legegintzaldian egin zen bateratze-ikerketarekiko haien interes faltari heltzen, baina ez du lortu elkartzearen gaineko kezka piztea.

Esteribarreko Udalerria:

– Informazio hitzaldi bat egin ondoren kontzeju eta udaleko ordezkariarekin udalerrriaren berrantola-

keta administratiboaz hausnartzeko, ikusi ahal izan da bi entitateak prest azaldu direla beren eskumenak banatzeko. Horretaz gainera, eztabaida-gune bat sortzea proposatu zen, eskurantzzen gaineko arazoak saihestu eta euren kudeaketa antolatu eta hobetzeko, udalerriko biztanle guztien alde.

– Gaurko egunera arte, Udalaren arabera, erantzuna ezberdina izan da batetik bestera, baina hala ere, ezin da gutxietsi.

ERRIBERRIKO MERINDADEA

Orba ibarreko udalerriak:

– Halaber, aurreko legegintzaldian egin zen bateratzeari buruzko ikerketako irizpideak udalerrri hauekin aztertzen eta birplanteatzen saiatu bada ere, ez du lortu.

– Harremana mantendu da udal ordezkariaren batekin, azkenean elkar ulertu beharko duten herrietako ekimen asoziatiboari berriro heltzeko unea iristean jakinaren gainean egoteko.

2. Zein lege-neurri aztertzen ari da Nafarroako Gobernua toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetako deialdietan dauden oztopoak gainditzeko?

Gaur egun, Nafarroako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetako deialdia geldirik dago, horrela ezarririk dagoelako Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko hirugarren xedapen gehigarrian. Hona hemen hitzez hitz:

“46.3 artikulua aipatzen dituen Batasunen eraketaren ondorioz idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetan egin behar den behin betiko berregituraketa burutu arte, ez da aplikatzen ahaliko zazpigarren tituluko II. kapituluko 1. eta 2. atalek xedatutakoa idazkari edo kontu-hartzailearen izaera erdiesteko egokitze-deialdiei buruz, baita hartan aurreikusten diren lehiaketa orokorren bidez lanpostu horiek betetzeko deialdiei buruz.”

Behin betiko berregituraketa egin arte, toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu hutsak beteko dira lanpostu horretarako berezko titulazioa duten aldi baterako lan-kontratudunen bidez.

Nafarroako Gobernuak, aurreko galderan ageri moduan, lan handia ari da egiten zerbitzuetako mankomunitate boluntarioak sortzeko, hori baita Gobernuaren ustez taldeen nahitaezko batasunaren sorrerari hobekien egokitzen zaion eredia. Izan ere, mankomunitateko kide diren toki entitateen gogoaz onartu eta toki autonomiaren irizpideak zehatz-mehatz hartzen ditu aintzat.

Nafarroako Gobernuak zerbitzuetako mankomunitate boluntario horiek gauzatu ondoren, legeak horrela agintzen baitu, arazoa konpontzeko neurri legal egokiak hartuko ditu.

3. Aurreikusita al du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Legea aldatzeko lege proiekturen bat, behin-behineko kontratuarekin lanean ari diren idazkari eta kontu-hartzaileen auziari konponbidea emateko?

Erantzuna aurreko galderaren berbera da. Nafarroako Gobernuak lehenengo aldiz ari da modu eraginkor eta etengabe lan egiten toki entitateen guztiendako zerbitzuetako bateratze boluntarioaren alde, eta hori da legea aldatu aurretik bete beharreko baldintza.

4. Prestaturik al du Nafarroako Gobernuak inolako neurririk duela bi hamarkadatik hona idazkari eta kontu-hartzaile karguak eskuratzeko dauden mugek sorturiko aparteko egoerari eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen garapen ezari konponbidea emateko behar den berregituraketa administratiboan aurrera egiteko?

Aurreko hiruek jaso dute galdera honen erantzuna.

Iruñean, 2000ko urriaren 30ean

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“4050 Plan Gehigarria” izeneko 10385-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “4050 Plan Gehigarria” izeneko 10385-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, galdera egin du Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 379/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-aldaketari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak eman dituen erantzunak:

– Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 200.000.000 pezetako aurrekontu-gehikuntza

egiteko “4050 Plan Gehigarria” izeneko 10385-0 kontusailean?

Aurrekontua 200.000.000 pezeta handitu da, Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 379/2000 Ebazpenaren bitartez onetsitako “4050 Plan Gehigarria” izeneko 10385-0 kontusailean, beharrezkoa zelako 1999ko ekitaldiko likidazioan baliogabetutako zenbateko bereko kreditu gerakina sartzea.

Ekonomi eta Ogasun kontseilariak maiatzaren 11n eman 233/1999 Foru Aginduaren bidez onetsitako aurrekontuko aldaketaren ondorioa da zenbateko hori.

Toki entitateek bidalitako informazioaren bidez antzemandako beharrak dira aldaketa horren funtsa, Toki Administrazioiko kontseilariaren 1997-1999rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko martxoaren 4ko 27/1999 Foru Aginduari jarraikiz.

Gainera, aurrekontuetako eskuragarritasunak eta indarra duen arautegiak holako jarduerak baimentzen dituzte.

Horrela bada, 1999ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legearen 20. artikulua, Nafarroako Toki Entitateek Nafarroako zergetan duten partaidetza fondoari buruzkoak, honako hau xedatzen

du: "Gerakin kontuetako ekonomiek aurreko ekitaldian jasotako obren kostu handiagoak finantzatu dituzte. Hala ere, ekonomia horien zenbateko osoak 150 milioi pezetako kopurua gainditzen badu, ateratzen den soberakinarekin obra berriak finantzatu ahal izanen dira, betiere

lehentasun irizpideei jarraituz eta 1997/1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planean lorturiko sailkapenen hurrenkera errespetatuz."

Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori?

Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 1999ko maiatzaren 31koa.
Ondoko obrak hasiera batez sartu dira 4050 Plan Gehigarrian (10385-0 kontusaila).

| Toki entitatea | Obra | Inbertsioa |
|----------------|--|------------|
| Cintruénigo | Ondoko kaleetako hornidura eta saneamendu sareak eta zoladura: Gayarre, Sarasate, H. Eslava eta Arrabal. | 138.845 |
| Funes | Hornidura eta saneamendu sareak (2. fasea). | 131.693 |

Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 1999ko abuztuaren 16koa.
Behin-behinekoz sartu dira obra hauek:

| Toki entitatea | Obra | Inbertsioa |
|----------------|--|------------|
| Cintruénigo | Ondoko kaleetako hornidura eta saneamendu sareak eta zoladura: Gayarre, Sarasate, H. Eslava eta Arrabal. | 138.845 |
| Funes | Hornidura eta saneamendu sareak (2. fasea). | 131.693 |

112/2000 Foru Agindua, ekainaren 20koa.
Cintruénigoko Udaleko obra behin betikoz sartu da planean.

| Aurrekontua | Finantzatu beharrekoa | Zenbatekoa | Diru ekarpena |
|-------------|-----------------------|-------------|---------------|
| 157.938.919 | % 91,07 | 143.827.508 | 115.062.006 |

167/2000 Foru Agindua, irailaren 19koa.
Funesko Udaleko obra behin betikoz sartu da planean.

| Aurrekontua | Finantzatu beharrekoa | Zenbatekoa | Diru ekarpena |
|-------------|-----------------------|-------------|---------------|
| 141.777.282 | % 93,35 | 132.345.170 | 103.229.233 |

Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren irailaren 1eko 552/2000 Ebazpenaren bitartez, aurrekontuko aldaketa onetsi zen (19.000.000 pezeta) 1999ko maiatzaren 31ko Nafarroako Gobernuaren Erabakiak sortutako benetako beharrei aurre egiteko.

Jakinarazi dizut behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko urriaren 31n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

1997ko urriaren 3ko Ministroen Kontseiluaren erabakiaren babesean kontratatutako langile minusbaliatuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak 1997ko urriaren 3ko Ministroen Kontseiluaren erabakiaren babesean kontratatutako langile minusbaliatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 23ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak 1997ko urriaren 3ko Ministroen Kontseiluaren erabakiaren babesean kontratatutako langile minusbaliatuei buruzko galdera egin du. Galdegileak idatziz erantzutea eskatu du. Hona hemen Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko kontseilari Nuria Iturriagaitia Ripoll andrearen erantzuna:

1.- Aipatu erabakia garatu da urtarrilaren 14ko 27/2000 Errege Dekretuaren bidez, eraginkortasuna areagotzeko. Arau horrek ez du lanposturik sortzen berez, baina Minusbaliatuen gizarteratze-ari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legean zehaztutakoa betetzeko aukera zabaltzen du.

2.- Neurri alternatiboak aurtengo urtarrilean gauzatu ziren, beraz, oso denbora gutxi iragan

denez ezin dugu arau hori epaitu, batez ere aurtengo abuztuan bukatu dituztelako. Izan ere, 2000ko urriaren 18ra arte ez da inolako eskabiderik iritsi Nafarroako Enplegu Zerbitzuko bulegoetara, urtarrilaren 14ko 27/2000 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

3.- Estatuko neurriez gain, ez da foru neurri osagarririk hartu. Erabakiak balio izan du kontratazio mugagabeetarako dirulaguntzak, nazio mailan, gaurkotzeko.

4.- Nazio mailako neurriak aplikatzen dira, foru mailan neurri berariazkorik ez baitago. Hala ere, Nafarroako minusbaliatuen langabezi tasa Espainiako txikiena da, eta horrek arazoak sortzen ditu kontratazioak egiteko bai enpresetan bai enplegurako zentro berezietan. Horregatik, maiz uko egin behar izaten zaie azpikontratazioei.

5.- Errege Dekretuak ezartzen du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren arteko koordinazioa. Izan ere, ikuskaritzako programa orokorretan pertsona minusbaliatuen kontratazioa eta baldintzak zaintzen dira.

6.- Urtarrilaren 14ko 27/2000 Errege Dekretuan eta hura garatzeko 2000ko uztailaren 24ko Aginduan aurreikusitako baldintza eta betebeharrakin.

Iruñean, 2000ko urriaren 27an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagaitia Ripoll

Allozko urtegia hustutzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak Allozko urtegia hustutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 16ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

